

Ordizian, 2016ko urtarrilaren 25ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	EH Bildu Ordizia
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

Gonbidatu gisa azaldu da baita ere IRABAZIren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

- 2016ko urtarrilaren 11ko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- Fakturak.
- Txostenak eta hainbat eskari.
  - Herri Antzokiko langile batek erretiroa hartzeko egindako eskaera.
  - Barretxeko lokal bat zinegotziek erabiltzea.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

- Hondakinen Mahaiari buruzko bilera.
- Etxebizitzen alokairurako diru-laguntzak jasotzeko aurkeztutako eskaerak.
- TAOren kontrolerako agentea kontratatzea.
- Trafikoan aldaketak.



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 17:00



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

### 1.- 2016ko urtarrilaren 11ko bilkuraren aktaren zirriborroa.

#### Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko urtarrilaren 11ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Gonzalez jaunak adierazi du aktan zuzenketa batzuk egin behar dituela:

- 1) Aktaren 4. puntuan “Urtezahar gauean udaletxean egindako kalteak” puntuan berak esandakoen artean, adierazi du bere lehenengo interbentzioan esan zuela elkarrizketaren bidetik joateko beharrezkoa iruditzen zitzaiola inplikaturako gazteek barkamena eskatzea, sortutako kalteak ordaintzea eta erantzukizun sozialen bat betetzeko konpromisoa hartzea.

Bere bigarren interbentzioan adierazi omen zuen bide penala saihestea zela bere irizpidea, baina betiere gazteek barkamena eskatzen bazuten beraien ekintzagatik.

- 2) 5. puntuan, “Hondakinen kudeaketa” puntuan, Gonzalez jaunak gogorarazten du ondorengoa adostu zela: izen emandako 38 pertsonen artetik zozketak bermatu behar zuela 29 urtez azpiko pertsona baten eta 70 urtetik gorako beste baten ordezkari izatea egotea, eta beste bi egotea gainerako adin-tartean (hau da, 29 eta 70 urte artean), betiere parekotasuna bermatzen dela.

Idazkari andreak azaldutako zuzenketak egin ditu eta akta aho batez onartu da.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

### 2.- Faktura zerrenda.

Bertaratutakoak jakinaren gainean daude.



### 3.- Txostenak eta hainbat eskari.

- Herri Antzokiko langile batek erretiroa hartzeko egindako eskaera: Jakinarazi da Remedios Rayak, Herri Antzokiko langileak, erretiroa hartzeko eskaera aurkeztu duela. Ana eta Arantxa Fernandez langilearekin eta Mari Carmen Muruarekin egongo dira bere lan-bizitzari buruzko informazioa eskuratzeko eta horren arabera jokatzeko.



.....

- Zinegotzientzako lan egiteko lokalak edo espazioak: Alkate jaunak jakinarazi du Barretxeko azken solairuko lokalean izan dela bertan EH-BILDUko eta ORDIZIAORAINgo zinegotzientzako tokia prestatzeko.



Jarraian Batzordeburuak eguneko aztergaietako hurrengo puntuaren berri eman du.

#### 4.- Galde-eskeak.

- Alkate jn: Hondakinen Mahaiak izandako lehenengo bileraren berri eman du eta jakinarazi du arazo bat sortu dela hizkuntzarekin. Mahaian dauden pertsona batzuek ez dute euskara ulertzen edo menperatzen.

Eguren jaunak uste du beti errespetatu behar den eskubidea dela euskaraz aritzeko eskubidea baina uste du azalpenak nola eman adostu daitekeela, eta gardenkiak ere erabil daitezkeela parte hartzen duten pertsona guztiek bileraren haria jarraitzen dutela bermatzeko.

Gonzalez jaunak esan du bera ere bileran egon zela eta izugarritzko tentsioa sumatzen dela. Bere ustez arazoaren sorburua ez da hizkuntza, baina hizkuntzan islatu zela uste du. Esan du 13 parte-hartzaileen artean 5ek ez dakitela euskaraz.

Eguren jaunari beharrezkoa iruditzen zaio mahaia eratzeko arrazoi izan den gaia lantzeko parte-hartzaile guztiek parte hartu ahal izatea eta hori bermatzea. Ez daki nola, baina hori bermatu egin beharko litzateke.

Moreno andreak adierazi du hain zuzen ere krispazioa sumatzen zela, eta hizlariari hitza etengabe moztzen ziotela.

Gonzalez jaunaren iritziz ez litzateke aldi bereko itzulpenaren aukera baztertu behar, eta bere uste lan-metodologia eta esku-hartzeko metodologiaren bat zehaztu behar litzaioke taldeari mahaiak ongi funtziona dezan.

Mahaian ziren guztiek azpimarratu dute bilera luzea izan zela eta ez zela eraginkorra izan inondik inora.

.....

- Eguren jaunak bi konturi buruzko informazioa eskatu du:

a) Etxebizitzen alokairurako diru-laguntzak jasotzeko aurkeztutako eskaera-kopurua.



b) TAOren kontrolerako agentea kontratatzea.

Alkateak eskatutako informazioa eman dio.

.....

-Sukia andrea: adierazi du baduela merkatariek trafikoaren inguruan dituzten kexen berri. Horrekin batera, jakin du orain arte ibilgailuentzako itxita zegoen Euskal Herria kaleko tartea berriro irekiko dela. Esan du berari esan ziotela ez zela trafiko-aldaketarik egingo harik eta gaia dagokion mahai parte-hartzailean adosten zen arte.

Alkate jaunak erantzun dio esanez gobernu taldearen iritziz kale-tarte hau irekitzea ezinbestekoa dela.

Eguren jaunak baieztatu du, azkeneko osoko bilkuran, horri buruz berak egindako galderari ere hori erantzun ziotela, erabakiren bat hartu aurretik trafikoari buruzko mahai bat eratuko zela; eta merkatariek aurkeztutako txosten tekniko batean oinarrituta ematen ari direla urratsak eta egindako bileretan egon diren udal teknikari bakarrak Merkataritza Teknikaria eta Udaltzaingoa izan direla.

Adierazi du herritarren partaidetza-prozesu baten ondorioz hartu zela aurreko legealdian Euskal Herria kaleko tartea ixteko erabakia; mugikortasun-plan batek babesten zuela hori eta gainera jendaurrera zabaldu zela informazio hori.

Gonzalez jaunak esan du kontsentsua lortzea komeni dela.

Alkate jauna ados azaldu da gai honi buruzko erabakiak kontsentsuz hartzeko proposamenarekin eta ondorengo erabaki da: udal teknikariek irizpide teknikoekin proposamena edo proposamenak egin ditzatela eta Gobernu Batzordeari horren berri eman diezaiotela, lan-mahaian landu aurretik.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

